

OLH 3 URTEKO IBILBIDEAREKIN (1) - HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK

Hezkuntza Saileko Hezkuntza Laguntzako Premia Bereziak (HLPB) dituztenen Erregistroan sartuta egotea

+

Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) izatea, adimen-funtzionamendu mugatuaren, adimen-desgaitasun arinaren edo egiaztatutako gaixotasun mentalaren ondorioz

+

Gutxienez DBHko 2. mailan ikasketak eginda

+

Irakasle Taldearen proposamena (Orientazio Batzordea)

OLH  
Oinarrizko Lanbide Heziketa

2021eko maiatzaren 27ko Aginduaren II. eranskina: Eskaera eskaintza baino handiagoa denean bete beharreko irizpideak:

1.- EAEn eskolatuta dagoen ikaslea / edo DBHko azken ikasturtean erkidego horretan bertan eskolatuta egon dena.

a.- Gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urte naturalean 16 urte betetzea (\*)

b.- Gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urte naturalean 15 urte betetzea (\*)

c.- Gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urtean 16 urte baino gehiago izatea (\*)

d.- Sartzeko baldintzak bete arren, mugako funtzionamendu intelektualetik, desgaitasun intelektual arinetik edo egiaztatutako gaixotasun mental batetatik eratorritakoak ez diren bestelako hezkuntza-laguntzarako premia bereziak dituzten ikasleak. (\*)

**(\*)Lehentasuna:** Talde bakoitzaren barruan berdinketarik izanez gero, ausazko prozedura bat baliatuko da, ikasleak onartzeko prozeduran erabilitako aplikazio informatikoak egina.

ESKAINITAKO PLAZAK

=

Plaza libreen gehieneko kopurua - Errepikatzaileentzat gordetako plazen kopurua ( $\leq 15$ )\*

\* Aukera dago ikasle kopurua handitzeko (gehienez 20), baina Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren baimena behar da

\* % 10 erreserbatuta % 33 edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzeagatik sartzen direnentzat.

\* % 5 erreserbatuta eliteko kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat.

\* % 85 erreserbatuta gainerako taldeentzat.

Desgaitasuna egiaztatzen dutenentzat edo eliteko kirolarientzat erreserbatutako plazak aukeratzen dituzten baina plazarik lortzen ez duten ikasleek aukera izango dute gainerako taldeentzat erreserbatutako plazak aukeratzeko.